



"GIPUZKOAAN TERAPIA AURRERATUAK SUSTATZEKO(GANTT) PROGRAMA"

“PROGRAMA DE PROMOCIÓN DE LAS TERAPIAS AVANZADAS EN GIPUZKOA(GANTT)”

2023KO DEIALDIA / CONVOCATORIA 2023

ZURITZEKO PROZEDURA
PROCEDIMIENTO DE JUSTIFICACIÓN

GANTT PROGRAMA

Informazio hau arretaz irakurri eta adierazitako jarraibideak bete zure proiektuaren justifikazio zuzena egiteko.

Zalantzarik izanez gero edo justifikazioari buruzko argibideren bat behar izanez gero, jar zaitetz harremanetan gure zerbitzuarekin zuriaketa bidali aurretik.

e-maila: sustapena.ekintzailetasuna@gipuzkoa.eus

1. JUSTIFIKATZEKO AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA



Eranskin guztiak bete behar dira, bere atal guztietan, data eta sinadura jarrita eta adierazitako informazioa aplikatiboan jarritakoarekin bat etorriko da. (Adibidez, proiektuaren izena aplikatiboan sartutakoaren berdina izango da eranskin guztietan)

- PROIEKTUAREN AMAIERAKO MEMORIA
- 1.ERANSKINA – KOSTUEN ADIERAZPENA
- 2.ERANSKINA – BEZ-ARI BURUZKO EGOERA ADIERAZPENA
[Lankidetzta taldea osatzen duten enpresa guztiak bete behako dute.](#)
- 3.ERANSKINA – BESTELAKO LAGUNTZEN ADIERAZPENA
[Lankidetzta taldea osatzen duten enpresa guztiak bete behako dute.](#)
- 4.ERANSKINA – ARDURAPEKO ADIERAZPENA
[Lankidetzta taldea osatzen duten enpresa guztiak bete behako dute.](#)
- 5.ERANSKINA – BARNE PERTSONALAREN ORDUEN ADIERAZPENA
[Lankidetzta taldea osatzen duten enpresa guztiak bete behako dute.](#)
- 5.1 ERANSKINA - Orduen txostenak: proiektuan lan egin duen pertsona bakoitzak eta haien arduradunek sinatuta.
[Lankidetzta taldea osatzen duten enpresa guztiak bete behako dute.](#)
- 5.2 ERANSKINA - - Pertsona bakoitzeko proiektuko zeregin edo faseetan oinarritutako orduen banaketa.
[Lankidetzta taldea osatzen duten enpresa guztiak bete behako dute.](#)
- 6.ERANSKINA – BARNE PERTSONALAREN KOSTUAK.
- 7. ERANSKINA GAUZATUTAKO KOSTUAREN ZEHAZTAPENA
- BARNE PERTSONALAREN GASTUAK ORDAINAGIRIAK: NOMINAK, 190 EREDUA, RNT
[2. atalean adierazitako jarraibideen arabera \(Barneko langileen kostuen justifikazioa\)](#)
- KANPOKO GASTUAK: FAKTURAK ETA ORDAINAGIRIAK
[3. atalean adierazitako jarraibideen arabera \(Barneko langileen kostuen justifikazioa\)](#)

1. BARNRE PERTSONALAREN KOSTUEN ZURIKETA

- 6.ERANSKINA – BARNE PERTSONALAREN KOSTUAK Excel formatuan, atal guztiak beteta
 - **2023 URTEKO datuekin** bete behar da.
 - Pertsona **2023-01-01etik aurrera** hasi bada **ENTITATEAN** lanean, 2023an entitatean lan egin dituen hilabeteak soilik beteko dira.
 - Pertsona 2024an hasi bada **ENTITATEAN** lanean, 2024an. Proiektua gauzatu arte, entitatean lan egin dituen hilabeteak soilik beteko dira.
 - **Soldata gordinaren zenbateko osoak 190 Ereduren** zenbatekoarekin bat etorriko da (zenbatekoak ez badatoz, bat, arrazoia dokumentu batean azalduko da eta erantsi egingo da).
 - Enpresaren kargurako **Gizarte Segurantzaren kostuak** bat etorri beharko du nominan edo “Lan-kostuaren zerrenda, hilerro zehaztua”n adierazitako zenbatekoarekin.

HONAKO DOKUMENTU HAUEK ERANTSIKO DIRA:

1. **2023 urteko 190 Eredua** (Lan etekinen, ekonomi jardueren etekinen gaineko atxikipenen eta konturako sarrerren urteko laburpena):
 - **Urteko laburpena,**
 - **Aitorpena aurkeztu denaren justifikazioa**
 - **Proiektuari orduak eta kostuak egozten dizkioten pertsonen urteko ordainsariei dagozkien orriak.**(hartzaileen zerrenda).
2. **Langile bakoitzeko lan-kostuaren zerrenda, hileru zehaztua:** kostu gordina (kontzeptuka banakatuta) eta enpresaren kargurako gizarte segurantza jaso beharko ditu (dokumentua nominen aplikaziotik lortzen da orokorrean).
3. **Proiektuan lan egin duten eta proiektuan lan-kostua duten pertsonen 2023ko hilabete guztietako nominak.**

Hala badagokio,

- Entitatean **2023-01-01etik aurrera** lan egiten hasi diren pertsonak, entitatean **2023an** lan egin duten hilabeteen nomina guztiak erantsiko dituzte.
 - **2024an** entitatean **lanean hasi diren** pertsonak, urte horretako nomina guztiak erantsiko dituzte, proiektua gauzatzen amaitu arte.
4. **2023an lan egindako lehen eta azken hilabeteko nominen ordainagiria. Nomina sorten kasuan, langile bakoitzaren banakapena ere aurkeztu beharko da.**

Hala badagokio,

- Entitatean **2023-01-01etik aurrera** lanean hasi diren pertsonak, **urte horretan proiektuan lan egindako lehen eta azken hilabeteko ordainagiriak erantsiko dituzte.**
 - **2024an** enpresan/erakundeetan **lanean hasi diren** pertsonak urte horretan proiektuan lan egindako **lehen eta azken hilabeteko ordainagiriak erantsiko dituzte.**
5. Proiektuan lan egiten duten pertsonen **Gizarte Segurantzaren IDCak**
 6. Proiektuan lan egin duten eta proiektuan justifikatzen den lan kostua duten pertsonen **2023 urteko hilabete guztietako RNT-ak eta 2024ko proiektuan lan egindako hilabeteko RNT-a (lehenengo TC2).**

Hala badagokio,

- Entitatean **2023-01-01etik** aurrera lan egiten hasi diren pertsonak, entitatean **2023an** lan egin duten hilabeteen RNT guztiak erantsiko dituzte *eta 2024ko proiektuan lan egindako hilabeteko RNT.*
 - **2024an** entitatean lanean hasi diren pertsonak, urte horretako RNT guztiak erantsiko dituzte, proiektua gauzatzen amaitu arte.
7. **Langile autonomoen kasuan**, RLC/RNT agirien ordean, langile autonomoen araubideari dagokion kotizazio-ziurtagiria, eta Kooperatiba-sozietateen kasuan, bazkide kooperatibisten kotizazio-ziurtagiria, dagokion Gizarte Segurantzaren erakunde laguntzaileak emana (2023 urteko hilabete guztiak eta 2024 urtean proiektuan lan egindako azken hilabetea). Halaber, **2023ko lehen eta azken hilabeteko ordainketak** (2023ko urtarrila eta abendua).

*****Aqiriak nola iqo:**

- **Artxibo bat, 190 ereduarekin** (urteko laburpena, aitorpena aurkeztu denaren justifikazioa, proiektuari orduak eta kostuak egozten dizkieten pertsonen urteko ordainsariei dagozkien orriak (hartzaileen zerrenda) **(aukeratu: 190 EREDUA)**)
- **Pertsona bakoitzeko** (Barne Pertsonala) **artxibo bat** erantsiko da. Artxibo horrek pertsona bakoitzeko eskatzen den dokumentazio guztia barneratuko du (**lan kostuaren zerrenda hilerro zehaztua, nominak eta nominen ordainagiriak**); eta **Gizarte Segurantzaren IDCak**
- **Artxibo bat 2023 urteko hilabete guztietako RNT (TC2)-ekin eta 2024ko proiektuan lan egindako azken hilabetekoa (aukeratu: RNT-TC2)**
- **Hala badagokio, autonomoen kotizazio-ziurtagiria edo bazkide kooperatibisten kotizazio-ziurtagiria, 2023 urteko hilabete guztiak eta 2024ko proiektuan lan egindako azken hilabetea.**

2. KANPOKO KOSTUEN JUSTIFIKAZIOA:

- 9. ERANSKINA GAUZATUTAKO KOSTUAREN ZEHAZTAPENA** Excel formatuan, atal guztiak beteta
- FAKTURAK ETA ORDAINAGIRIAK**

Fakturaren data **EZIN DA proiektua amaitzen den dataren ONDORENGOA IZAN, eta inola ere ez araudian ezarritako proiektua gauzatzeko amaierako data baino geroagokoa (2024ko AZAROAREN 7a).**

Nolanahi ere, ez dira hautagarriak izango 400 eurotik beherako kostuak (**BEZik gabe**).

Kostuen frogagiriak eta beraien ordainagiriak eskaneatu eta erantsiko dira.

Justifikatzen den kontzeptuaren izenarekin **pdf** dokumentu bat erantsiko da. Bertan faktura/frogagiri bakoitza bere ordainagiriarekin batera agertuko da, **9. eranskinean jarritako hurrenkera jarraituz.**

(Artxibo handiak direnean, behar den zatietan banatuko da adieraziz adib.: Kanpo Pertsonalaren kostuak 1.pdf; Kanpo Pertsonalaren kostuak 2.pdf.....)

- 15.000 EUROTIK GORAKO GASTUEN JUSTIFIKAZIOA**

Erantsi: 3 eskaintzak eta egindako hautuaren txosten sinatuta.

15.000 euro edo hortik gorakoak (BEZa kanpo) gastuak badaude, ondasun ekipoak erosten edota aholkularitza edo laguntza teknikoko enpresen zerbitzu prestazioak erosten, eskatutako **hiru eskaintzen artean** egin duen aukera egiaztatzeko dokumentazioa erantsi behar du. Salbuespena: laguntza horren ezaugarri bereziak direla-eta behar adinako enpresa edo profesionalik ez badago zerbitzu horiek emateko, edo kostua diru-laguntza eskatu aurretik egin ez bada.

- 60.000 EUROTIK GORAKO GASTUEN JUSTIFIKAZIOA**

Halaber, hirugarrenekin hitzartutako jarduerak diru-laguntzaren zenbatekoaren %20 gainditzen badu, eta zenbateko hori 60.000 eurokoa baino handiagoa bada, sinatutako kontratuaren kopia erantsi beharko da.

3. PROIEKTUAREN DOKUMENTAZIOA

4.1 - DOKUMENTAZIOA

Proiektuan zehar sortutako dokumentazioa atxiki behar da. Bertan, proiektuaren dokumentazio teknikoa, grafikoa, argazkiak edo ikus-entzunezkoak sartuko dira.

4.2. - PROIEKTUAREN PUBLIZITATEA

Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuak emandako laguntza eta sustapenari dagokionez, **proiektua gauzatzean egindako publizitate egokia jasotzen eta ikusarazten duen dokumentazioa erantsi beharko da** (irudi instituzionala, legendak, dokumentuetan, bitarteko elektronikoetan, komunikabideetan eta abarretan sartuta).